

## JUANMARI MADARIAGA

Juanmari Madariaga irakasle eta itzultzaileak *Periferiak* topaketetan izan zuen interbentzioan zehar azalduaren arabera, Euskal Herriko oraingo unea ulertzeko oso interesgarria izan daiteke beste herrialde batzuetako esperientziak gogora ekartzea. Kolektibitateek Polonia edo Hego Afrika bezalako herrialdeetan, urrun eta heterogeneo ikusten ditugun horietan, izan dituzten eraikuntza eta garapen prozesuak aztertzeak hemen gertatzen ari dena ulertzeko balio dezake.



### POLONIA

Poloniako estatu unitarioa Mieszko I.ak, Piast dinastiako lehen erregeak, sortu zuen 966an. XIV. mendean zehar, Kasimiro Handiaren erregealdian, Europako herrialderik handiena izan zen. Europa mendebaldeko herrialdeak latz jo zituzten krisialdiek, bata bestearen segidan etorritako izurri beltzek eta 100 Urteko Gerrak ez zuten Polonia ukitu. 1370ean, Kasimiro Handia hil zenean, Hungariako erregea iritsi zen tronura, eta honek noble poloniarrekin itun bat egin behar izan zuen, biztanleria osoaren %10 inguru hartzen zuen kolektibo honi hainbat eskubide aitortuz bertan. Nobleek, trukean, Europa osoan parekorik ez zuten hautagarritasun printzipio bat finkatzea onartu zuten.

Monarkia poloniarrek, bere historiaren hainbat unetan, ahaidetasunezko harremanak izan zituen Bohemiako eta Hungariako koroekin, baina benetan Poloniaren nondik norakoan eragin sakona izan zuen gertaera Eduvigis, 1385ean, Lituaniako duke handi Jagellon-ekin ezkontzea izan zen. Hurrengo bi mendeetan, Poloniako lurraldeak ia-ia milioi bat kilometro koadro hartzen zituen, eta gari ekoizle nagusia izanik orduan –izugarri produktu garrantzitsua zen hau garai hartan- Europa osoa hornitzen zuen. Garia nobleziaren lur izugarri zabaletan lantzen zuten; nobleziaren lurak, izan ere, handiago egin ziren Lituaniako dukerriarekiko batasunaren ondorioz. XV. eta XVI. mendeetan zehar, kolektibo desberdin gisa existitzen zelako kontzientzia zuela, tronuan gertatzen zen ondorengotza bakoitzaz bere eskubideak berrestea lortu zuen noblezia horrek. Zerga pribilegioak eta arlo militarrekoak handituz zihoazen ondorengotza bakoitzaren ostean.

1572an, hautespen bideko monarkia gisa agertu zen ofizialki erresuma; subiranoa noblezia osoak aukeratzen zuen. Nobleek erregearekin egin itun hauek sendotu egin zuten aipatu lehenen boterea, murriztuz bide batez bigarrenarena. Hautespen bideko monarkiaren sistemak, egiaz, gari ekoizpena kontrolatzen eta honen hedatzea zaintzen zuen aristokrazia gisa ziharduen. Nobleziak aurka egiten zion hirien garapenari, ez zegoen hiririk erresuman, merkataritza galarazi zuten, eta lana behartua zen. Nobleek metaturiko aberastasun itzelak ez zion biztanleen egoerari hobera eragiten, okerrera baizik.

XVII. mendearen hasieran, zereal salmentak hazkunderik ez zuelarik eta barne gatatzak ugaltu zirela, krisialdi larria sortu zen. Gainera, kanpo erasoek areagotu egiten zuten egonkortasun falta sentsazioa. Une horretara arte, Poloniak ez zuen ondoko herrialdeen erasorik jasan. Ez zuen ejertzito nazionalik, zeren eta behar izanez gero nobleen gudarosteak elkartu eta denak batera borrokatzen ziren. Mende horretan eta hurrengoan zehar, kosako, suediar, moskutar, tartariar eta turkoen inbasioek suntsitu egin zuten herrialdea. Nobleziaren barneko gorabeherak eta Austria, Prusia eta Errusia potentzia handien presio gero eta handiagoak Poloniaren banaketa ekarri zuten 1772an. Hirugarren banaketaren ostean, 1795ean, Polonia desagertu egin zen mapatik. Herrialdeko lurraldea hiru potentzien artean banatu zuten, eta bakoitzak bere sistema sozio-politikoa ezarri zuen zegoen zatian.

Epe honetan zehar kultur mailan eta militarrean gertatzen ari zen zapalkuntza, atzerritik heldua, etengabea izan zen. Kontzientzia poloniarri bizirik eutsi zioten hainbat altxamendu ahaleginetan noblezia izan zen buru. 1830 eta 1863a urte garrantzitsuak izan ziren; hauetan, noblezia armaz altxatu zen nekazaritza politikaren aurka. Paradoxa bada ere, Marx altxamendu horien alde agertu zen, zeharo jauntxo ukitukoak baziren ere. "Rosa Luxemburg eta Lenin elkarren aurka izan ziren, kontu hau zela eta. Rosa Luxemburgek zioenez, altxamendu horiek ez zuten langile poloniarrek jasaten ari ziren egoera hobetuko. Alabaina, Lenin alde agertu zen zeren eta, bere iritziz, herrien autodeterminazio eskubidea iraultzaren eginkizunen aurretik zegoen", azaldu zuen Juanmari Madariagak.

I. Mundu Gerraren garaian, Polonian ezkerreko bi alderdi politiko zeuden. Alde batetik Poloniako Alderdi Sozialista, Josef Pilsudski buru zuena, eta bestetik Polonia eta Lituaniako Alderdi Sozialista Demokratikoa. Alderdi bion eginkizun nagusia herrialdearen independentzia berreskuratzea zen. Josef Pilsudski oso garrantzi handiko pertsona izan zen gerra arteko Poloniaren historian. Boluntarioz osatutako gudaroste bat antolatu eta trebatu zuen, eta 1914an Alemania eta Austriaren alde jarri zen Errusiaren aurka, bere herrialdearen independentzia lortuko zuen itxaropenez. Pilsudskik sortutako ejertzittoa izan zen hiru lurralde poloniarrek lotu zituen indar antolatu bakarra. 1917an, Frantziako, Erresuma Batuetako eta Estatu Batuetako gobernuek Poloniaren independentzia onartu zuten, baina Pilsudskiren helburua XVI. mendeko "Polonia Handi" hura berrezartzea zen. 1920an eraso bizkor bat gidatu zuen, eta honen bidez egungo Bielorrusiaren eta Ukrainaren lurraldea berreskuratzea lortu zuen. 1926an estatuaren buruzagitza hartu zuen bere gain.

1939an Adolf Hitlerrek Polonia inbaditu zuen; gertakari honek II. Mundu Gerra piztu zuen. 1945ean tropa errusiarrek Polonia okupatu zuten; ez zuten erbesteko gobernuaren errespetatu, eta ez zioten herrialdeari independentzia itzuli. Errusiaren okupazioaz Moskutik gobernatzen zuten Polonia, baina sobietarrek ezarritako erregimen komunistak ez zuen gizarte-bilbean errotzerik lortu. 1945 eta 1989 bitartean Polonia "bloke sobietarreko bosgarren zutabea" izan zen. Karol Wojtyła aita santu aukeratu izanak eta Solidarnosc sindikatuaren sorrerak izugarritzko bultzada eman zuten erregimena erortzeko eta, honen ondoren, trantsizio prozesua abian jartzeko. "Polonian sekula ez zen bat etortze sentimentalik gertatu independentziaren eta ezkerreko alderdien artean", esan zuen Juanmari Madariagak.

## HEGO AFRIKA

Hego Afrika kontinente horretako estatu-naziorik zaharrenetako bat da. Gaur egun hamaika hizkuntza ofizial ditu.

Kolonizazioa XVII. mendearen erdialdean hasi zen. Holandarrak Ekialdeko Indietarako bideari eusten ari ziren ahalegintzen, eta Lurmutur Hiria ezinbesteko eskala bat zen, bidaiarako haragi eta barazkiz hornitzeko. 1652an, orduan iritsi baitziren, eta 1690ean ahalegin asko izan ziren khoikhoien eta holandarren artean harreman komertzialak finkatzeko; ez zuten ordea atarramentu onik atera. Une horretan, agintari holandarrek erabaki zuten han kolonia iraunkor bat jartzea; izan ere, horrela lurraldeaz eta esklaboz osatutako lan-indarraz jabetu ahal izango ziren. 1806an britainiarrak Lurmutur Hirian kokatu ziren, eta hainbat akordio egin zituzten merkantziak trukatzeko; osterantz, bertako buruzagiak bitartekari bihurtu zituzten, eta esklaboak harrapatzeari aurre egin zioten. Bide horretatik, berehala hasi ziren holandarren esklabismo intrantsigentearekiko liskarrak. 1834an, hauetatik 14.000 inguru kontinentearen barrualderantz joan ziren, hasiera emanez, horrenbestez, Transvaal-era, egungo Orangeria eta Natal-era eramango zituen great trek (bidaia handi) hari.



Holandarren eta Koroa Britainiarraren arteko bizimodu baketsua 1867an amaitu zen, hain zuzen Transvaalen urre eta diamante hobi garrantzitsuak aurkitu zituztenean. Inguru haren balio ekonomiko eta estrategikoa oso handia zela konturatu zirenean, 1899ko gerra piztu zen. Gerran hiru urte eman ostean, holandarrek etsi eta britainiarren nagusitasuna onartu zuten.

1910ean Hegoafrikar Batasunaren Konstituzioa sortu zen –Lurmutur, Natal, Orange eta Transvaal probintzien federazioa- Commonwealthen barnean, eta beltzei ukatu egin zieten botoa emateko eta lurjabe izateko eskubidea. 1912an, beltzen lehenbiziko erakunde politikoa sortu zen, Afrikar Kongresu Nazionala. Ingelesek sistema politikoa egituratu, eta 1948an lehenbiziko hauteskundeak izan ziren; boto-emakile gehienak zuriak ziren, eta Alderdi Nazionala iritsi zen boterera. Pixkanaka-pixkanaka, nederlanderaz mintzatzen ziren *afrikaner*-ek areagotu egin zuten esfera politikoaren barnean zuten eragina eta boterea, eta arrazagatiko segregazio edo bereizkeria bultzatu zuten: lan-indar beltza hirietatik kanpo bidaltzea... arazoa arau hauetarako legeak egitea zen.

1950 eta 1960 bitartean, Hego Afrikan zeharo elkarren kontrako bi kontzepzio nazionalista egon ziren aurrez aurre: *afrikanerrena* batetik, eta Afrikar Kongresu Nazionalak defendatzen zuena bestetik.

"Afrikar Kongresu Nazionalako lehenbiziko buruzagiak jende aberats samara izan ziren, eta mende erdi batez hainbat eskari bidali zituzten Londresera, baina ez zuten benetako oposizio lanik egin. Gazteriaren Ligaren sorrerak eta Hego Afrikako Alderdi Komunistarekin ezarritako loturek hainbat aldaketa ekarri zituzten laneko moduetan, eta programa oldarkorrago bat bereganatu zuen", azaldu zuen Juanmari Madariagak. Aldaketa hauen aurrean, gobernuaren erantzuna berehalakoa izan zen: Afrikar Kongresu Nazionala, Kongresu Panafrikarra (Kongresu Nazionalaren zatiketa batetik sortu zen, eta gero Beltz Kontzientziaren Mugimendua izango zen) eta Alderdi Komunista legez kanpo jarri zituzten. Borrokan erabateko aldaketa gertatu zen. Afrikar Kongresu Nazionalak bere adar armatua sortu zuen, "*Umkhonto we Sizwe*" (Nazioaren Lantza) izenekoa; honen lehenbiziko eginkizuna buruzagi beltz kolaborazionisten kontra borrokatzea izan zen. 1963an atxilotu egin zituzten ANCREn buruzagi garrantzitsuenak; Nelson Mandelari biziarteko kartzela ezarri zioten, eta Oliver Tambok bere gain hartu zuen mugimenduaren buruzagitza erbestean. Apartheida eguneroko kontua zen.

Herrialdeak jasan zuen blokeo komertzial eta finantzarioak eta nazioarteko presioak oposizioarekiko itun bat egin beharra erakutsi zuten. 1989 eta 1994 bitartean negoziazio prozesu bat izan zen; honetako partaideak ejertzitza eta "*Umkhonto we Sizwe*" izan ziren, nahiz indar paramilitarrek bere jardunean segitu zuten. Azkenean, 1994an lehenbiziko hauteskunde libreak egin zituzten herrialdean. Afrikar Kongresu Nazionalak gehiengo lortu zuen botoetan, eta Hego Afrikaren arazo gehienak konpontzeko gai zela zirudien. "Egungo galdera, berriz, zera dugu: helburua lortu al du, edo gauzak bere horretan gelditu dira?", amaitu zuen.

-----

## **CC**

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Banatu eta jende aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.